



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/10/19

## **Aldundiak adierazo dauenez, Panpako lumagandorrak Bizkaian hartzen dauen lurzoruaren okupazioa "ez da kezagarria"**

Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak "nasaitasunezko" mezu bat emon dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan, "Panpako lumagandorra" izenez ezagutzen dan landarak lurraldean dauen zabalpenaren inguruan. Espezie "inbaditzailea" gure artean "geratzeko" heldu da, baina daukan okupazio maile "ez da kezagarria". Unzuetak guzurtatu egin dau "izurrite" baten aurrean gagozanik.

Talde Mistoak eskatuta Bizkaiko Batzarretako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako batzordearen aurrean izan dauen agerraldian, Unzuetak argitu dau Aldundiak "aurrera jarraitzen dauela espezie horren jarraipenean eta kontrolean". Udazken honetan izan dauen gero eta hedapen handiagoa dala-eta Talde Mistoaren eretxiz izurritea dan arren, txosten teknikoek erakusten dabenez, bere egoera "ez da aldatu" azkenengo hilebeteetan.

Talde Mistoak izan ezik, Batzarretako gainerako taldeek ontzat emon ditue diputatu andreaken berbak eta Foru Aldundia, Udalakaz batera, batez be lur mobimenduak jaso dituen lurretan dagon landara horren hedapena kontrolatuko egiten dabilen beharra. Lur horreen artean dagoz errepideak, trenbideak edo hondakindegia egin diran inguruak. Holan, Foru Aldundiak eskuliburu bat argitaratu dau, eta aholkularitza tekniko zerbitzua eskintzen deutse udalerriei.

Elena Unzuetak iragarri dauenez, aurrerapenak lortu dira "Cortaderia Selloana" izenekoaren kontrako burrukan, Barbadun errekaaren arroko leku batean. Aldundiak proiektu pilotu bat aktibatu dau bertan. Inguruan dauen presentzia "murriztu" egin da.

Dana dala, informazio horrek ez dau konbentzitu Talde Mistoko ordezkari bakarra, Arturo Aldecoa, eta azkenengo denporetan landara horrek izan dauen zabalkundea "oso kezagarria dala" berretsi dau. Aldundiak "ohiko arazo bat balitz moduan lantzen dau egoera, oso, oso arazo larria dan arren". "Sua moduan zabaltzen da, abiadura osoz", esan dau, eta "hurrengo hamarkadan oso arazo larria izango dala" iragarri dau, landarak ugaltzeko dauen erraztasunarengaitik eta desagertuarazoteko gaitza dalako.

### **DOPAJEAREN KONTRAKO KONTROLAK IDI PROBA OFIZIAL GUZTIETAN**

Talde Mistoak, Laukizko Mikel Deuna txapelketan gertatu dan ustezko idien dopaje kasua dala eta eskatu dauen beste agerraldi batean, Unzuetak jakinarazo dau Aldundiak dopajearen kontrako kontrolak egin dituala idi proba ofizialen "%100ean" 2016ko abuztutik. Hilebete horretan sartu zan indarrean kirol probatan parte hartzen dabien animalien osasuna eta ongizatea kontrolatuko 137/2016 foru dekretua.

Kontrol horreetan, Aldundiak hiru positibo hauteman ditu –131 azterketaren artean– guztiak be 2016an: bat Elorrion eta beste bi Zamudion. Unzuetak adierazo dauenez, Foru Aldundiak kirol probatan parte hartzeko urte biko debekua ezarri eutsen hiruei, "korta osoari", eta "7.500 euroko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

isuna” jarri eutsan Elorrioko proban parte hartu eban abeltzainaren eta “5.000 eurokoak” Zamudion hautemandako kasu bieiei.

Diputatu andreak adierazo dauenez, arlo hori arautzen dauen dekretuak animaliak erabilten dituen herri kirol ustiapenen erregistroa sortzea be aurreikusten eban. Orain arte “54 ustiapenek eta kiroletarako erabilten diran 141 idik” emon dabe izena. Indarrean sartu zanetik, Aldundiak 154 “idi proba” saio eta 126 “zaldi/asto proba” saio baimendu ditu.

Laukizen itxuraz gertatu zan dopaje kasuari jagokonez, hori izan da-eta agerraldiaren jatorria, Unzuetak jakinarazo dau Aldundiak garagarrilean jarri ebala fiskaltzaren esku Cuatro kateko “A cara de perro” programako bideo bat. Bideo horretan abeltzainak dopajea onartzen eban. Horren ostean, irailaren 19an, Getxoko epaitegi baten ofizioa jaso eban, Aldundiari txiz eta odol laginak hartzeko agindua emonez Laukizko proban parte hartu behar eben “idi guztiei”. Unzuetak bere konpromisoa agertu dau, epaibidea amaitzen danean kasu horren inguruko azalpenak emoteko barriro.

Batzarretako talde guztiek adierazo dabenez, Aldundiaren dekretua “aurrerapausua” izan da dopajearen kontrako burrukan, baina EH Bildu taldetik kontrol neurriei “buelta bat emoteko” eta dopajearen kontrako beste analisi moeta bat sartzeko aukerea aztertzeko eskatu dau, “zeozerk iges egiten deuskulako”, Mikel Kormenzana batzordekideak adierazo dauenez. “Zoritxarrez”, dopajerako erabilten diran substantziak “aurretik doaz” onetsi dau Unzuetak, baina bere konpromisoa agertu dau, Administrazioek kontrolerako “neurri gehiago” aztertu daiezan, aurreikuspenak beteten badira Eusko Jaurlaritzak onetsiko dauen arautegi “zorrotzagoa”, besteak beste. Momentuz, pozik agertu da, Foru dekretua frutuak emoten dabilelako, hauteman dan azkenengo dopaje kasua 2016ko zemendikoa dalako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
19/10/2017

## **La ocupación de suelo del plumero de la Pampa "no es alarmante" en Bizkaia, según la Diputación**

La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha lanzado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia un mensaje de “tranquilidad” ante la extensión por el territorio del conocido como “plumero de la Pampa”, una especie “invasora” que ha venido “para quedarse” pero que mantiene un nivel de ocupación que “no es alarmante”. Unzueta ha negado que nos encontremos ante una “plaga”.

En su comparecencia ante la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de la Cámara vizcaína solicitada por el grupo Mixto, que sí considera que Bizkaia sufre una plaga dada la creciente extensión de esta especie durante este otoño, Unzueta ha aclarado que la Diputación “continúa trabajando en el seguimiento y control” de esta especie. En base a los informes técnicos, su situación “no ha variado” en los últimos meses.

A excepción del grupo Mixto, los grupos junteros han dado por válidas las palabras de la diputada y el trabajo que está realizando la Institución foral junto con los ayuntamientos para controlar la proliferación de esta planta que se encuentra mayormente en terrenos que han sufrido movimientos de tierra como consecuencia de la construcción de carreteras, vías férreas o escombreras. En este sentido, la institución foral ha editado un manual y ofrece un servicio de asesoría técnica a los municipios.

Elena Unzueta ha anunciado ciertos avances en la lucha contra la “Cortaderia Selloana” en un paraje de la cuenca del Barbadún en donde la Diputación ha activado un proyecto piloto. Se ha llegado a “minimizar” su presencia en la zona.

En cualquier caso, la información no ha convencido al único representante del grupo Mixto, Arturo Aldecoa, quien ha llegado a afirmar que el avance de la planta en los últimos tiempos “es alarmante”. La Diputación aborda la situación como si fuera “un problema normal, cuando es de extrema gravedad”. “Se extiende como el fuego, a toda velocidad”, ha dicho, tras advertir que será “un problema muy serio en la próxima década” debido a la facilidad que tiene la planta para reproducirse y su dificultad para eliminarse.

### **CONTROLES ANTIDOPAJE EN TODAS LAS PRUEBAS DE BUEYES OFICIALES**

En otra comparecencia solicitada también por el grupo Mixto en relación a un posible caso de dopaje de bueyes en una prueba celebrada en Laukiz, Unzueta ha informado de que la Diputación ha realizado controles antidopaje en el “100%” de las pruebas de bueyes oficiales desde agosto de 2016, mes en el que entró en vigor el decreto foral 137/2016 de control de sanidad y bienestar en animales que intervengan en pruebas deportivas.

En esos controles, la Diputación ha detectado tres positivos -entre 131 análisis- todos en 2016: uno en Elorrio y otros dos en Zamudio. Unzueta ha informado de que la institución foral impuso a los tres, “a la cuadra completa”, una clausura de dos años de prohibición para participar en



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

pruebas deportivas, y una sanción de “7.500 euros” al ganadero que participó en la prueba de Elorrio y de “5.000 euros” a los dos casos detectados en Zamudio.

La diputada ha señalado que el decreto que regula esta materia contemplaba también la creación de un registro de explotaciones de deporte rural con animales, en el que hasta la fecha se han inscrito "54 explotaciones y 141 bueyes deportivos". Desde su entrada en vigor, la Diputación ha autorizado 154 sesiones de “idi probak” y 126 sesiones de “zaldi/asto probak”.

En cuanto al caso de supuesto dopaje ocurrido en Laukiz, que ha sido el origen de la comparecencia, Unzueta ha informado de que la Diputación puso en el mes de julio en manos de la Fiscalía un video del programa “A cara de perro” del canal Cuatro en donde un ganadero admitía prácticas de dopaje, tras lo cual, el 19 de septiembre, recibió oficio de un juzgado de Getxo para que la Diputación tomase muestras de orina y sangre "a todos los bueyes" que iban a participar en la prueba de Laukiz. Unzueta se ha comprometido a dar explicaciones en Juntas nuevamente sobre este caso una vez se cierre la vía judicial.

Para todos los grupos junteros, el decreto de la Diputación ha supuesto “un avance” en la lucha contra el dopaje, si bien, desde el grupo EH Bildu han pedido que se “dé una vuelta” a las medidas de control y se estudie la incorporación de otro tipo de analíticas antidopaje, ya que “algo se nos escapa”, ha dicho el juntero Mikel Kormenzana. “Desgraciadamente”, las sustancias dopantes “van por delante”, ha admitido Unzueta, quien ha recogido el guante para que las Administraciones estudien “más medidas” de control como la que espera aprobar en el futuro el Gobierno vasco imponiendo una normativa “más restrictiva”. De momento, se ha congratulado de que el decreto foral esté dando frutos, ya que el último caso de dopaje es de noviembre de 2016.